

Euskal Herriko Itzulia

Laugarren etapa: Gasteiz-Doneztebe

artazuriketan

Ez onenak; baina bai merkeenak

Andoni Egaña

«A MÌ PLIM, yo duermo en Pikolin» edo «Fanderiako pentsuak: ez merkeenak, bai onenak» esatea aski zen garai batean. Bere produktua iragarri nahi zuenak zuzen zuzenean, itzuringururik gabe, aipatzen zuen iragargaia-
ren ontasunaren handia. Errimak gainera, belarria gozatzen zigun batetik, eta memoria-lana samurtzen bestetik.

Urteak igaro ahala izugarri sofistikatu da saltzailearen trikimailu maila. Orain auto marka jakin bat saltzeko, gizonetzko bekaizti bat aurkeztuko digute, ilea tindatzen duena, marradun trajea jazten duena, eta zakur txuri baten jabe egiten dena. Autoa oso zeharka baino ez digute azalduko. Edo laranja-zko freskagarria saldu nahi duenak semaforo bat agertuko digu, eta semaforoa laranja-jarri zain ganberro kuadrila bat, laranja kolorea gurtzeko prest.

Euskalteleko mutilek lehengo erara egiten dute publizitatea. Itzuringururik gabe. Kokoloena ere konturatzeko moduan. Elastikoen kolore bizi bizi dute azaleko ezau-garri. Eta kolore horrekin hainbat minutuz azaldu dira telebista pantailan. Begi-kolpe sarritan errepikatua. Sofistikazio urriko estrategia da. Baina bere erara, eragingarri.

Tropela pikolinzale amorratu agertu zaigu gaur arte, nagi eta lotia. Laranja-kolorekoei semaforoa gorrian egokitu zaie beti ordea. Tamalez, Aitor Silloniz, Alberto Lopez Munain edo Unai Etxebarriaren ahaleginak hutsean geratu dira.

Kontuak kontu, pentsuenari buelta ematea lortu dute: Harro esan dezakete, «ez onenak, baina bai merkeenak» direla.



PABLO S. QUIZA

Beriain elurtua, txirrindulariei so. Nafarroan sartu eta inongo inbidia-rik ez duten parajeetan ibili ziren txirrindulariak. Beriaingo gailur elurtua lekuko izan zuten, Lottokoek jaramon handirik egin ez arren.



PABLO S. QUIZA

Alvaro, etxe ondotik abiatzeko zain. Alvaro Gonzalez Galdeano gasteiztarrentzat berezia izan zen atzoko etapa, jaioterri-rik abiatu baitzen tropela. Vitaliciokoa, ordea, Itzulian ez dabil sasoirik onenean.

Errepide mozketak gaur erlojupekoagatik

Azkoitia eta Madariaga auzoa artean gaur arratsaldean jokatu den erlojupekoa dela kausa, errepideak moz-tuta egongo dira 14:00etatik 19:00etara. Azkoitia, Azkarate gaina eta Elgoibar lotzen dituen bide berria (GI-2634) itxi egingo dute, eta baita bide zaharra ere (GI-3210), Azkoitia, Azkarate gaina eta Azurki gaina bitartean.

Telebista monitorea zuzendariaren autoan

Lasterketako zuzendariak eta koordinatzaile nagusiak probaren nondik norakoak telebistaz jarraitzeko aukera dute aurtan, autoan bertan monitorea bana baitaramate. Orain arte, Radio Vuel-tak eskainitako informazioarekin konformatu behar izaten zuten, baina orain ETBren irudiak ere jaso ditzakete kotxean bertan.

Liderraren taldea larri iritsi zen irteerara

Atzo goizean Gasteizen eguzkia agertu zen, eta jendetza handia bildu zen irteera puntuan, inguruan izugarritzko ataskoa sortuz. Sinadura kontrola 12:00etan itxi zuten antolatzaileek, eta txirrindulari batzuek lanak izan zituzten garaiz iristeko. Danilo Di Lucak eta Cantinako taldeki-deek bizikleta hartu eta auto artean ibili behar izan zuten.

Gaur 12 milioi pezetatik gora banatuko dira saritan

Gaur amaituko da Euskal Herriko Itzulia, Azkoitia, eta antolatzaileek 12 milioi pezetatik gora banatuko dituzte saritan. Sailkapen nagusiko irabazlearentzat 841.000 pezeta daude aurreikusita. Talde onenak 100.000 pezeta jasoko ditu, eta bigarren mailako beste sailkapenetako irabazleek 50.000 pezetako diru saria izango dute.



PABLO S. QUIZA

Gasteizko alkatea, etapa irteeran. Alfonso Alonso alkateak ez zuen Gasteizko irteera galdu nahi izan, eta etapa hasi aurretik batetik bestera ibili zen. Argazkian, Enrique Erentxun antolatzailearekin ageri da.



elxekil, s.L.

- ◆ HESIAK
- ◆ KARPAK
- ◆ PABILIOIAK
- ◆ BULEGOAK
- ◆ BILTEGIAK
- ◆ ALDAGELAK
- ◆ KOMUN MUGIKORRAK
- ◆ ESZENATOKIAK
- ◆ TXOSNAK
- ◆ TRIBUNAK

☎ 94 671 04 75 - Faxe: 94 671 13 58
Barrondo auzoa - Uriondoaurte auzoa
48480 ZARATAMO

ERAIKUNTZAK MODULOKA - ALOKAIKURUA ETA SALMENTA





